



EBAZPENA, 2019ko apirilaren 2koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan, parte hartuko duten Epaimahaien eta Batzorde Barematzaileen egoitzak zein lurralde historikotan kokatuko diren zehazten dituena (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitu ziren).

2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez (EHAA, 2019ko martxoaren 7koa), Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez hautaketa-prozeduretarako deialdia egin baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko.

Aipatutako Aginduaren 5.2.2 eta 5.4 oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta Epaimahaietako eta Batzorde Barematzaileetako kideek zozketatu aurretik, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez erabakiko dira espezialitate bakoitzeko Epaimahaien eta Batzorde Barematzaileen egoitzak zein lurralde historikotan kokatuko diren.

Aipatutako zozketa, 2019ko apirilaren 11n izango dena, lurralde-mailan egingo da, kideen helbideetako lurraldeen eta espezialitate bakoitzeko epaimahaien edo batzorde barematzaileen egoitzak kokatuko diren lurraldearen arabera; hori horrela izango da, deialdian ezarritako salbuespenak salbu.

Horregatik,

EBAZTEN DUT

1.– Espezialitate bakoitzeko Epaimahaien egoitzak hurrengo lurralde historikotan kokatuko dira:

- Maisu-maistren kidegoa

Espezialitatea	Epaimahaiak Lurralde Historikoak
Haur Hezkuntza	Gipuzkoa
Lehen Hezkuntza	Bizkaia
Ingelesa	Gipuzkoa
Gorputz Hezkuntza	Gipuzkoa
Musika	Bizkaia
Hezkuntza Berezia. Pedagogia Terapeutikoa	Bizkaia
Hezkuntza Berezia. Entzumena eta Hizkuntza	Bizkaia

- Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoa

Espezialitate guztiak Araban.

- Hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoa

Espezialitate guztiak Araban.



2.– Espezialitatearen edo espezialitate-taldeen Batzorde Barematzaileen egoitzak hurrengo lurralde historikotan kokatuko dira:

- Maisu-maistren kidegoa

Espezialitatea	Batzorde barematzaileak Lurralde Historikoak
Haur Hezkuntza	Gipuzkoa
Lehen Hezkuntza	Bizkaia
Ingelesa	Gipuzkoa
Gorputz Hezkuntza	Gipuzkoa
Musika	Bizkaia
Hezkuntza Berezia. Pedagogia Terapeutikoa	Bizkaia
Hezkuntza Berezia. Entzumena eta Hizkuntza	Bizkaia

- Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoa

Espezialitate guztiak Araban.

- Hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoa

Espezialitate guztiak Araban.

3.– Argitaratu ematea ebazpen hau Hezkuntza Saileko honako Interneteko helbideetan:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Berriak».

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> - «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Epaimahaiak, hautaketa-batzordeak eta batzorde barematzaileak».

4.– Interesatuak gorako errekurtsoa jarri ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitaratu eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 2an.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria
JON AGIRRE HUERGA